

**2012KO IRAILAREN 27KO MINISTRO-KONTSEILUAN HARTUTAKO ERABAKIEI
BURUZKO ELAREN IRITZIA**

2012ko urriaren 1a

0- SARRERA

Irailaren 26ko greba orokorraren biharamonean, Rajoyren gobernuak, hartu duen erabaki andana medio, arrazoia eman digu berriro ere deialdia egin genuenoi. Argi zegoen murrizketa laboral eta sozial larri gehiago hartzekoak zirela, eta hala gertatu da. Irailaren 27ko Ministro-Kontseiluak, besteak beste, honakoak erabaki zituen: 2013rako Aurrekontu-Proiektua, neurri fiskalak, Politika Ekonomikorako Estrategia Espainiarra (datozen sei hiletan 40tik gora lege aldatzeko konpromisoaz), edota erreforma laboral eta negoziazio kolektibokoaren garapena (hitzarmenak ez aplikatzeko modua errazteko).

I- 2013RAKO ESTATUKO AURREKONTU-PROIEKTUA

2013rako estatuko aurrekontu-proiektuak 2012koaren aldean %5,6 gehituko direla aurreikusten du, hots, 8.933 milioi euro gehiago. Diru hori dena, eta gehiago, zorraren interesak ordaintzeko izango da: atal hau 9.742 milioitan haziko da, 2012ko aurrekontuan baino %33,8 handiagoa izango da. Zehazki, zorraren interesak ordaintzeko 38.590 milioi euro erabiliko da, estatuak egingo duen gastuaren %22,7.

Interesak zorrarekin batera gehitzen dira. Baina zor handiagoa ez da gizarte-gastua hazten delako sortzen. Benetan zor pribatua zor publiko bihurtzen ari direlako gehitu da. Datu ofizialek diotenez, finantza-krisiaren hasieratik hona, Estatuak bankuetara 115.000 milioitik gora bideratu ditu, abalak emanaz, aktiboak erosiz, galerak bereganatuz eta laguntza zuzenak emanaz. Aurrekontu-proiektuak dagoeneko atal hauetan 15.000 milioitik gorako galera aitortzen du, eta Europar Batasunak gobernuari bankuei dirua emateko egingo dion mailegua zor publiko gisa zenbatu beharra ere. Honen ondorioz zor publikoa hazi egingo da, 2013an %90,5raino.

Horrek zor handiagoa dakar, eta beraz, ordaindu beharreko interesak. Beraz, zor hori ilegitimotzat jo dezakegu. Zorra eta interesak ordaintzeko gastu publikoaren gainerako atalak murrizten dituzte.

Gainera, erabakiak hartu eta hurrengo egunera, jakinarazi zuten espainiar estatuko bankuek beste 53.000 milioi euro beharko dituztela (gobernuak aurreikusten duenez, gutxienik 40.000 milioi jarri beharko ditu). Horretarako sortuko dute banku txarra. Politika Ekonomikorako Estrategia Espainiarraren arabera -estrategia hau hurrengo puntuan aztertuko dugu- BPGaren %20 erabili beharko da Espainiako bankuak saneatzeko. Ez dute lotsarik agerian geratzen denean ongizate sozialeko sistema guztia murrizketaz murrizketa desegin nahi dutela, langabezia gehitu eta pobrezia hedatu. Estatu bere ahalmenen mugaraino daramate helburu bakarrarekin, espainiar finantza-sistema saneatzea.

Aurrekontu-proiektuaren oinarria Gobernuaren konpromiso bat da: eutsi egingo dio 2013an defizit publikoa BPGaren %4,5 eraino jaisteko helburuari. Austeritate ildoari eusteko erabakiak atzeraldi ekonomikora, langabeziaren hazkunde nabarmenera eta gizarte-estalduren etengabeko murrizketara bultzatzen du. Halaber, atzeraldi betean ezinezkoa gertatzen da defizita murrizteko helburuak betetzea, eta honek atzera ere murrizketa gehiago erakartzen du, zeinek egoera okertzen baitute. Zurrumbilo honetatik atera beharra dago, gizartearen hondamendira baikaramatza.

Ohikoa bihurtu da, honez gero, betetzea ezinezko den aurrekontu-proiektuak aurkeztea; irailaren 27an aurkeztutakoa ere halakoa dugu. Parlamentuko tramitean mugak ezarriko dizkiote, eta 2013an murrizketa gehiago ezarriko dira onartutako aurrekontuetan. Gobernuak estrategia hau

estrategia hau erabiltzen du eskubide laboral eta sozialen murrizketa komeni ahala erabakitzearen. Ez dio hainbeste axola aurrekontuak betetzen diren ala ez, (izan ere, bai baitakite ez direla beteko); koartada gisa erabiltzen da erreforma antisozialak ezartzeko, Europako exijentzien aitzakiaz (hauek benetan Europar Batasuneko gobernu guztien arteko akordioak izan ohi dira, Espainiakoa barne).

Aurrekontu-proiektuak dioenez, gastuari dagozkion neurri estrukturalak BPGaren %0,77ko eragina izango dute; diru-sarrerarenak, aldiz, %0,56. Hots, neurri estrukturalen %58 gastua murrizteko erabaki dira, eta %42 besterik ez diru-sarrerak gehitzeko. Horrela, espainiar gobernuak bere ildo neoliberalari jarraitzen dio: gastua murriztea diru-sarrerak handitzea baino garrantzitsuagoa da. Gainera, 2013an diru-sarreretan izango den hazkundearen zatirik handiena BEZaren igoera medio etorriko da, eta hau erregresiboa da. Dena dela, esan beharra dago datorren urterako aurreikusita dituzten diru-bilketa kopuruak oso zalantzazkoak direla, eta portzentaje horiek are gehiago desorekatuko dira seguruenik.

Aurrekontu-proiektuan honakoak dira aipagarrienak:

- Herri-administrazioetako langileen ordainsaria izoztea, enplegu publikoaren eskaintza bezalaxe (ospitaleak edo irakaskuntza salbu, non plazen %90 ez baita osatuko).
- Pentsioak %1 gehituko dira. Pentsioen igoera 2012ko berdina izango da. Gobernuak ez du esan pentsiodunek berreskuratuko ote duten aurreten galdutako erosteko ahalmena (iraileko urte-arteko KPI %3,5an dago). Badirudi ez dela halakorik gertatuko. Izan ere, bestela ezinezkoa baita 2013ko pentsioetako gastua aurrekontuan jasotako mailan egotea.
- Ministerioen gastua %8,9 murriztuko da: guztira 39.772 milioi euro, hots, zorraren interesak ordaintzeko kopurua baino 1.200 milioi gehiago.
- Langabezia-prestazioen gastua %6,3 murriztuko dela aurreikusten da, gobernuak badakien arren langabe kopurua gehitu egingo dela. Hau ere uztailen erabakitako prestazio murrizketaren ondorio da.

II- ZERGEKIKO NEURRIEN LEGEGAIA

Diru-sarrera publikoak gehitzeko neurrietako bat PFEZeko aldaketa izango da, honako xehetasunekin:

- Urtebetean edo epe laburragoan izandako ondasun irabazien zerga ez da aurrezkiarena bezalakoa izango; PFEZaren zerga-oinarri orokorra ezarriko zaie.
- Ohiko etxebizitzan egindako inbertsioari dagokion kenketa ezabatuko egingo da 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako erosketetan.
- Estatuko Loteria eta Apustueta jasotako 2.500 eurotik gorako sariei %20ko zerga berri bat ezarriko zaie, eta kendu egingo da Estatuko Loteria eta Apustueta sariak zerga ordaintzetik salbu izatea.

Ondasunaren gaineko Zerga 2013an mantendu egingo da.

Halaber, aldaketak izango dira Sozietateen gaineko Zergan. Batetik, enpresentzako amortizazio erregimenean azken balantzea dirutan eguneratzeko aukera izango dute borondatez; eguneratze horren emaitzaren gaineko %5eko zerga ezarriko da. Bestalde, 2013an eta 2014an enpresa handien ibilgetu materialaren amortizazioetan kenkari fiskala %70era mugatuko da, eta hortaz, zerga gehiago ordaindu beharko dute. Haatik, ez da kapitalen ihesa jazartzen, ezta enpresa handiek ordaindu beharrekoa baino gutxiago ordaintzea eragiten duen ingeniarietza fiskala ere.

Diru-sarrera publikoak gehitzeko beste jardunbide batzuk: Iruzur fiskalaren Prebentzio eta Jazarpenerako Legea, Enplegu Irregularra eta Gizarte-Segurantzari egindako iruzurra jazartzeko legea, baita Zigor-Kodearen erreforma bat (zeinak delitu fiskalentzat eta Gizarte-Segurantzarekiko egindako delituentzat tipo gogorragoa ekarriko baitu). Honek propaganda itxura du, batez ere.

III- GOBERNUAREN POLITIKA EKONOMIKORAKO ESTRATEGIA

Estrategia honi buruz ildo nagusiak besterik ez dira ezagunak; gobernuak datozen sei hiletan 40tik gora lege mailako ekinbide aurkeztuko omen ditu. Argitaratu duten dokumentuan honakoak dira aipagarrienak:

Pentsioen aurkako beste eraso bat

Urtea amaitzerako Toledoko Itunaren Batzordeari iraunkortasun faktorea arautzeko proposamen bat igorriko diote, pentsio-sistemaren parametroak aldatzeko. Zein dira parametro horiek? Erretiro adina, pentsioa kalkulatzeko modua, kotizaziopeko pentsioa izateko beharrezko urte kopurua, etab. Hots, pentsioekin zerikusia duen guztia alda dezakete.

“Gizarte-Segurantzako sistemaren Iraunkortasun Faktorea” izeneko 2011ko Legea, zeinaren aurka greba orokorra deitu baikenuen Hego Euskal Herrian, Zapateroren gobernuak, patronalak eta CCOOek eta UGTk sinatu zuten akordioa jaso zuen. Besteak beste erretiratzeko adina 67 urtetaraino atzeratuz pentsioak murrizteko bidea irekitzen zen horrela. Legeak zioenez, “sistemara egindako ekarpenak eta berarengandik espero diren prestazioak proportzionalak izan daitezen, eta iraunkorrak, 2027tik aurrera sistemaren parametro nagusiak berrikusi egingo dira, berrikuspena egiten den urtean 67 urteko biztanleen bizi-itxaropena eta 2027an izango den bizi-itxaropenaren arteko aldea aintzat harturik. Berrikuspenok bost urteoro egingo dira, eta oinaritzat dagokien erakunde ofizialek egindako prebisioak hartuko dira”.

Horrenbestez, aurreikuspen ofizialek badiote bizi-itxaropena gehitu egingo dela (hots, prebisioak egiten dituztenen esku dagoen zerbait) berehala erretiro adina atzeratu egin beharko da eta gastua murrizteko beste erabaki batzuk harut. Rajoyk horixe egingo du urtea amaitzerako, 2027ra arte itxaron gabe.

Gobernuaren Politika Ekonomikorako Estrategiak ere dioenez, erretiro adin erreala legezko adinera hurbiltzeko neurri gehiago hartuko dira, eta hartara aldatu egingo dute jubilazio partzial eta aurreratua.

Luis de Guindos ministroak iragarri zuen legea berehala zehaztuko dela (beraz, Toledoko Itunean eztabaida luzatzeko asmorik ez dute).

Mutualitateen erreforma

2012ko laugarren hiruhilekoan Laneko eta Gaixotasun Profesionaletako Mutualitateen Legearen erreforma egingo dute, absentismoaren jazarpena areagotzeko. Hots, baja gutxiago eta alta arinagoak. Honek langileen osasuna zaintzearekin ez du zerikusirik.

Zerga-Agintaritza Independentearen sorrera eta defizit publikoaren murrizketa

Agintaritza horrek kontu publikoak zainduko ditu, egonkortasun legea eta administrazio guztietarako defizit helburuak betetzen direla alegia. Agintaritzak aurrekontuen etengabeko jarraipena egingo du, balizko desbideratzeak ahalik azkarren ikustearren, horrela dagozkion gatziguak eman ahal izateko. Gainera, autonomia-erkidegoek hilerio eman beharko dituzte aurrekontuen exekuzioari buruzko datuak. Agintaritza hori 2013ko lehen hiruhilekoan sortuko da.

Beraz, espainiar gobernuak austeritate ildoari jarraitzen dio. Lurralde-administrazioek beren Plan Ekonomiko-Finantzieroetan jasotako doikuntzak bete beharko dituzte, besteak beste enpresa eta fundazio publikoak gutxituko direlarik.

Finantza-sistemaren erreforma: "banku txarra"ren sorrera

Finantza-Sistemaren Erreformatan abuztu amaieran erabakitako errege-dekretuak aplikatzen jarraituko dute; horien xedea finantza-erakundeak berregituratzea eta ixtea zen, eta urtea amaitzerako aktiboak kudeatzeko sozietatearen (banku txarraren) araudia eta sorrera erabakiko da.

Gobernuaren arabera, espainiar bankuak saneatzeko ahalegina estatuko BPGaren %20ekoa izango da.

Lan-merkatuko eta enplegu-politiketako aldaketa gehiago

Gobernuak lan-merkatuaren erreforma ezartzen jarraituko du, baita enplegu-politikak aldatzen ere. Esparru honetan berria zer da? Prestakuntza eta aprendizajerako kontratuaren inguruko araudiaren garapena eta lanbide-heziketa eredu duala ezartzeko oinarrien zehaztapena.

Laneko bitartekaritzan, berriz, Enplegu Zerbitzu Publikoen esparruan lankidetza publiko-pribatua areagotu beharra aipatzen da, besterik zehazteke, baina argi uzten dute helburua enpleguaren inguruko negozioa erraztu eta zerbitzu publikoen egitekoa gutxitzea dela.

Gainera, enplegu-politika aktiboen ebaluazio orokor bat egingo dute -Gobernuak egin asmo duen erreforma laboralaren emaitzen jarraipenaren antzera-, hurrena erabaki beharreko lehentasunezko helburuak zein diren jakiteko eta baliabideak enplegua topatzeko zailtasun handiena duten pertsonengan biltzeko. Helburu honen arabera urte amaitzerako Enplegu eta Ekinbide Gaztearen Estrategia onartuko da.

Aipatutako erabakiez gainera, 2012 amaitu baino lehenago gobernuak lan-egutegiaren erreforma onartuko du (nonbait zubiak desagerrarazteko), horrela ekonomiaren lehiakortasuna indartuko dela argudiatuz.

Arlo publikoko beste erreforma batzuk

Arlo publikoko erreforma egiten jarraituko dute, aurten hainbat erabaki hartuko direlarik. Estatuko legedian osasun-, hezkuntza- eta menpekotasun-zerbitzuak murrizteko edota telebista autonomikoak kudeatzeko tresnekin batera, autonomia-erkidego guztietarako ezarriko diren Plan Ekonomiko-Finantzieroetako jardunbideak izango dira, baita Toki-Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunerako Legea ere; honek udalen eskumenak zehaztu eta bikoiztasunak saihestuko ditu eta egitura administratiboak gutxitzea ekarriko du (Mankomunitate

eta Toki-Erakunde txikiak). Gainera, Hauteskunde-Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren erreformaren ondorioz zinegotzi kopurua mugatuko dute.

Aurtengo azken hiruhilekoan sendagai eta osasun-produktuen berme eta erabilpen arrazionalerako legean erreforma egingo dute, eta 2013ko lehen hiruhilekoan osasun erreforma garatuko da; osasun-karteren arautzea areagotuko da.

Zerbitzuen arloa liberalizatzea

Beste neurri batzuk: Jarduera profesionalari buruzko Neurrien Legea, 2012-2013 Europar Seihilekoaren gomendioen baitan; telekomunikazio arloa areago liberalizatzeko jardunbide berriak, Telekomunikazioen Lege Orokorra barne; garraio sektorean (burnibideko bidaiarien trafikoa liberalizatzea eta AENAn kapital pribatua sartzeko neurriak), zein energiaren arloan (Arlo Elektriako Lege berriarekin).

IV- ERREFORMA LABORAL ETA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOKOAREN ERREFORMAREN GARAPENA

Errege-Dekretuz Gobernuak Hitzarmen Kolektiboen Batzorde Kontsultibo Nazionala arautu zuen, joan den otsailean erabakitako erreforma laboral eta negoziazio kolektibokoa garatzeko. Erreforma hark Batzorde honi ematen dio enpresen eta langileen ordezkarien artean dauden desadostasunak konpontzeko ahalmena, hitzarmena ez aplikatzeko prozeduretan. Errege-Dekretu honekin gobernuak hitzarmenak ez aplikatzeko enpresen interesen aldeko beste urrats bat egin du, dekretuak ezartzen baitu alderdien arteko akordiorik ezean erabaki bat hartuko dela.

Batzorde horren egitekoa autonomia-erkidego bat baino gehiagotan ezarritako enpresetan hitzarmenaren aplikazioa salbuestea edo ez ebaztea da. Alabaina, bigarren xedapen gehigarriak dio autonomia-erkidegoetan horren tankerako hiruko organorik ez badago Batzorde Nazionalak esku hartu ahal izango duela, Enplegu-Ministerioaren eta erkidego horren artean lankidetzat hitzarmena badago.

ELAk Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari exijitzen die Enplegu-Ministerioarekin ez dezatela akordiorik egin, Hitzarmen Kolektiboen Batzorde Kontsultibo Nazionalak parte hartzeko aukerarik egon ez dadin.

V- ONDORIOAK

1. ELAk Espainiako Gobernuaren erabakiak ez ditu onartzen. Eskubide laboral eta sozialentzako kalte handia dakarte eta jendearen bizi- eta lan-baldintzetan atzerakada izugarriak iragartzen dituzte.
2. Bankuei dirutza eman die, are gehiago emango diete, eta diru hori gizarte-gastutik kentzen da (pentsioen erosteko ahalmena galtzen da, administrazioetan diharduen lanpostuak ere bai, langabezia prestazioak jaitsi, enplegu publikoa murriztu, zerbitzu publikoen kalitatea kaltetuz, etab.). Lapurreta egiten ari dira, ekonomiako, finantzetako, hedabideetako eta politikako botereen laguntzaz.

3. Erakundeen eta alderdi politikoen artean sakoneko akordio bat dago politika hauek aplikatzeko, agintean zein dagoen gorabehera. Itun hau botere-finantzekin zerikusia duten kontu guztietan eta Konstituzioaren erreformarekin agerian geratu zen: honen ondorioz zorra ordaindu beharra beste edozerren gainetik jartzen dute. Honek gero eta gehiago urruntzen ditu klase politikoa eta herritarak. Gero eta nabarmenagoa da agintzen dutenek ez dituztela herritarren gehiengoaren interesak ordezkatzeko.
4. Gobernuaren neurriek, esaterako pentsioei buruzkoek, nabarmen uzten dute ez dagoela delako elkarriketa sozialerako tokirik. Izatekotan honek politika ultraliberal bat onesteko beste xederik ez du, herritarren gehiengoaren eskubideei inoiz ezagutu den erasorik latzena egiten ari den politika.
5. Espainiar gobernuak zergei buruz hartutako erabakiek nabarmen uzten dituzte hiru Foru-Aldundiak eta Nafarroako Gobernua. Krisi betean egon arren, erakundeok ez dute zerga-politika aldatu. Biltzen den diru kopurua jaisten ari dela egiaztatu besterik ez dute egiten, eta horrenbestez lagundu egiten dute defizit publikoa murrizteko bide bakarra gizarte-gastua mozterakoan.
6. Greba orokorra deitu genuenok arrazoia genuen. Hala ulertu zuen euskal langile-klasearen gehiengoak, egun horretako lanuztean eta mobilizazio handietan parte hartu baitzuen. ELAk berretsi egin behar du ezinbestekoa dela mobilizatzen jarraitzea eraso hauei aurre egiteko eta politikak alda daitezen lortzeko. Halaber, Euskal Herrian sortu den gune sindikal eta sozialak erakunde desberdinen lankidetzan ahalbidetzen duela uste du, helburuak eta jarduteko moduak partekatuz.